



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Enkarnesk** Balmasedan sortu nahi dugun emakumeentzako gimnasio proiektua da. Honen helburua emakumeek kirola egiteko espazio seguru, eroso eta atsegina bihurtu nahi dugu, osasuna eta ongizatea lantzeko. Proiektuak arrakasta izan dezan, oso garrantzitsua da jakitea norentzat zuzenduta dagoen, eta horretarako merkatuaren segmentazioa osatu dugu.
- **Bezero nagusia:** **Enkarnesken** bezero nagusia Balmasedan eta Enkarterrin bizi diren emakumeak dira, adin desberdinetakoak baina helburu antzekoak dituztenak, hau da, osasuna zaintzea, aktibo egotea eta ondo sentiarazten dien giro batean entrenatzea.
 - **Ezaugarriak:**
 - **Generoa:** emakumeak
 - **Adina:** 16 eta 65 urte bitartean
 - **Bizilekua:** Balmaseda eta Enkarterri osoa
 - **Interes nagusiak:** kirola, osasuna, elikadura osasungarria
 - **Balioak:** norbanako konfiantza, segurtasuna, hurbiltasuna eta arreta pertsonalizatua
- **Merkatuaren segmentazioa:** bezero guztiak ez dira berdinak, eta horregatik hainbat segmentu desberdinetan banatu ditugu, bakoitzari zerbitzu egokiena eskaintzeko.
 - **Emakume gazteak (16-25 urte):** segmentu honetan ikasleak edo lanean ari diren emakumeak sartzen dira.
 - **Ezaugarriak:**
 - Kirola egiteko eta itxura fisikoa zaintzeko interesa izaten dute
 - Talde klase aktiboak gustuko dituzte
 - **Enkarnesken eskaintza:**
 - Klase dinamikoak
 - Aplikazio mugikorra
 - Sare-sistema
 - **Garrantzia:** proiektuari bizitasuna ematen diote eta etorkizunerako bezero fidelak izan daitezke.
 - **Emakume helduak (26-45 urte):** lanean dabiltzan edo familia duten emakumeak dira, eguneroko errutinatik deskonektatzeko kirola egiten dutenak.
 - **Ezaugarriak:**
 - Denbora gutxi normalean

- Ordutegi malguen beharra
- Zerbitzu pertsonalizatuak eta umeentzakoak baloratzen dituzte
- **Enkarnesken eskaintza:**
 - Entrenamendu pertsonalak
 - Nutrizionista-zerbitzua
 - Kafetegi osasungarria (puntuak kafetegian erabiltzeko aukera)
- **Garrantzia:** ekonomikoki egonkorragoak dira eta zerbitzu gehiago erabiltzeko joera dute horrela proiektua bizirik mantendu ahal daiteke.
- **Kirola egiten hasten diren emakumeak:** esperientziarik ez duten edo denbora luzez ariketa egin ez duten emakumeek osatzen dute.
- **Ezaugarriak:**
 - Lotsa edo segurtasun falta
 - Giro lasaia behar dute
- **Enkarnesken eskaintza:**
 - Hasiberrientzako programak
 - Entrenatzaileen laguntza
 - Arreta pertsonalizatua
- **Garrantzia:** balio soziala handitzen du, emakume guztiei aukera ematen dielako.
- **Emakume nagusiak (45-65 urte):** segmentu hau oso garrantzitsua da, osasuna mantentzeko eta ondo sentitzeko kirola egin nahi duten emakumeek osatzen dutelako.
- **Ezaugarriak:**
 - Segurtasuna lehenesten dute
 - Ariketa egokiak behar dute
 - Konfiantzazko giroa behar dute
- **Enkarnesken eskaintza:**
 - Talde txikiko klaseak
 - Entrenatzailearen jarraipen pertsonalizatua
 - Nutrizionistaren aholkuak
 - Atsedeen gune erosoak
- **Garrantzia:** bezero fidelak izaten dira eta proiektuari egonkortasuna ematen diote.
- **Merkatu mota:** *Enkarnesk* merkatu segmentatu batean kokatzen da, konkretuki nicho-merkatu edo merkatu espezializatu batean, emakumeentzat bereziki pentsatutako eta Balmaseda eta Enkarterrira egokitutako zerbitzu bat delako, hau da, publiko zehatz bati zuzenduta dago eta interes eta behar konkretu batzuetara ere bai.
- Merkatuaren segmentazioa honi esker, *Enkarneskek* bezero bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzuak eskaini ahal izango ditu eta horrela

Balmasedan emakumeentzako gimnasio hurbil, seguru eta kalitatezkoa sortzea posible izango da.